

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2666/2019 Alkatetza Dekretua, ekainaren 28koa, zeinak, batetik, Basauriko Udaltzaingoko Ofizial lanpostu bat (derrigorrezko 3. HE-duna) Administrazio arteko hautapen-sistemaren bidez betetzeko prozedurari dagozkion onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onesten baititu, eta bestetik, epaimahaia izendatu, eta probak egiteko data baitu.

Basauriko Udaltzaingoko ofizial lanpostua (Derrigorrezko 3. HE-duna) administrazio arteko mugikortasun-sistema eta lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta horren oinarri arautzaileak onetsi zituen maiatzaren 17ko 2061/2019 Alkatetza Dekretuak. Deialdi hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, EHAA-n eta Udalaren webgunean argitaratu zen 2019ko maiatzaren 31n. Gero, ekainaren 3an, prentsan argitaratu zen Basauriko Udalak deialdiari buruz emandako ebazpena.

Hautapen-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik egon zen ekainaren 3tik 21era. Bada, epe hori agortuta, eta deialdiaren oinarri arautzaileen bostgarren oinarrian xedatu bezalaxe, Alkatetza honek zera

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: Udaltzaingoko Ofizial lanpostu bat (Derrigorrezko 3. HE-duna) betetzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onestea. Hona hemen:

Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda

| NAN | 1. abizena | 2. abizena | Izena |
|-----------|------------|------------|-------|
| 38659**** | IBERNIA | BELAMENDIA | ZIGOR |
| 7887**** | ERKOREKA | ARRUZA | ASIER |

Bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda

| NAN | Abizenak | Izena | Bazter utzteko arrazoia |
|----------|---------------|-------|--|
| 2903**** | ELECETA LAVIN | JON | * Eskakizunei eta merezimenduei buruzko dokumentazioa ez aurkeztea |

Behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, automatikoki, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Ordea, erreklamazioak egonez gero, ebazpen berria emango du alkate udalburuak, behin betiko zerrenda onesteko, eta zerrenda hori argitaratu egingo da.

Prozeduraren edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu izangai batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, hura deialditik kanpo utziko du, entzunaldia eman eta gero.

Bigarrena: Honako hauek izendatzea Epaimahai Kalifikatzaileko kide:

- Mahaiburua: Alberto López Setién, Sopelako funtzionarioa.
- Mahaiburuordea: Aitzol Abaroa Erkoreka, Plentziako funtzionarioa.
- Idazkaria: Luis Fernando Sánchez Ocerin, Basauriko funtzionarioa.
- Idazkariordea: Marian Pajares Sierra, Basauriko funtzionarioa.
- 1. mahaikidea: Ainhoa Idirin Merino, Basauriko funtzionarioa.
- Ordezko 1. mahaikidea: María Andrés Rodríguez, Basauriko funtzionarioa.
- 2. mahaikidea: Sergio Rodríguez Alonso, Basauriko funtzionarioa.
- Ordezko 2. mahaikidea: Jaime Blanco Pablos, Basauriko funtzionarioa.



- 3. mahaikidea: Roberto Blanco Orozco, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatutako funtzionarioa.
- Ordezko 3. mahaikidea: Angelica Bucarito Atxabal, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak proposatutako funtzionarioa.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezingo dute deialdian parte hartu. Beste alde bate-tik, hautagaiek Epaimahaiko kideak errekusatu ahalko dituzte, Sektore Publikoko Arau-bide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako arrazoiak agertzen badira.

Hirugarrena: Merezimendu espezifikoei buruzko proben data, tokia eta ordua zehaztea: 2019ko uztailaren 23an izango da, Basauriko Udaltzaingoaren komisarian (Jaga, 2). 9:00etan izango da proba praktikoa, eta 11:45ean, berriz, nortasun-proba eta elkarrizketa. Aurreikusi da prozesua 15:30-16:00ak aldera amaitzea.

Laugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta Udalaren iragarki-taulan zein webgunean (www.basauri.eus) argitaratzeko agindua ematea.

Bostgarrena: Ebazpen honen aurkako erreklamazioa aurkeztu ahalko da 10 egun naturaleko epean, hura argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, edo, hala bada-gokio, baztertzea eragin zuen akatsa konpondu, epe berean.

Basaurin, 2019ko ekainaren 28an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren